



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

## ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

**2008/09 DENBORALDIA**

### **15. ZIRKULARRA**

#### **PARTIDEN ORDUTEGIAK**

Federazioak partiduak koordinatzeko helburuarekin Batzorde honek beharrezkotzat jotzen du ondorengo arauak egitea. Derrigorrez bete behar dira, eta gure Klubek irakurri beharko dituzte:

1. Partiduak jokatzeko eguna, ordutegia eta jokalekua partiduaren aurreko asteko ostiralaren 19:00ak baino lehen jakin beharko du Batzorde honek.

ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDE honi jakinarazpenak egiteko ondorengo bideak dituzue eskura: **web horria: [www.eff-fvf.org](http://www.eff-fvf.org); Faxe: 944 732 221.**, edo posta elektronikoa: **webmaster@eff-fvf.org**

**Partiduaren aurreko asteazkenaren 22:00ak baino lehen** jakinaraziko zaizkio aurkako taldeari partiduaren data, ordutegia eta jokalekua.

2. Partiduak hasteko ordutegiak:

Larunbata: 15.30 - 20.30 ord.

Igandea: 10,00 -13,00 eta 16.00 – 18.00 Ord.

3. Klub guztiei jakinarazten zaie eskumena dutela aurreko puntuan ezarritako partiduen ordutegi ofiziala aldatzeko; betiere aurkako taldea ere ados badago eta Areto Futboleko Euskal Batzordearen baimenarekin. Aldaketa jasotzen duen dokumentuak klub bakoitzaren zigilua eta sinadura izan beharko ditu.

Eskaera ez bada idatziz egiten, edota adierazitako epearen barruan ez bada egiten, eskatutako ordutegi aldaketa ezeztatuko da.

Ostiral, larunbata, igandea, jaieguna edota jaiegunaurrekotan jolasten ez diren partidak, zelaiaren jabeak diren klubek 13 € gehiago ordaindu beharko diote aipatutako arbitro bakoitzari.

4. Azken jardunaldiko partiduak egutegian finkatutako larunbateko 18:00ean hasiko dira guztiak, emaitzak azken sailkapenean eragina badu.

Guztiak ezagutzeko eta dagozkion xedeetarako jakinarazten da.

2008 irailak 9, Bilbao

  
JON ANDER GAMBOA AGUIRRE  
Secretario General